

B euskararen BERRIPAPERA

Teknologia berrien erabilera euskara biziberritzeko

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) ekonomi, gizarte eta kultur bizitza erabat aldatzen ari dira; informazioa prozesatzeko, biltzeko eta transmititzeko ahalmen handia dute eta informazioa tratatzeko eta zabaltzeko era berriak eskaintzen dituzte.

Euskara biziberritzeko ahaleginetan ere lehen tasuna eman behar zaio informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera aregotzeari, hots, ikusentzunezko teknologien, informatikaren eta telekomunikazioen bategiteak sortu duen multimedia teknologia euskaraz garatzeari.

Euskara ospe handiko esparru berri honetatik kanpo geratzeak kalte handia egingo lioke hizkuntzaren balioari buruz dugun uste eta perzeptzioari.

Orain arteko aurrekariak

Euskara eta teknologia berrien inguruan hainbat egitasmo jarri dira abian. Hor ditugu, besteak beste: Euskaltzaindia (*Orotariko Euskal Hiztegia*, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*, *Euskera* aldizkaria); UZEI (*Euskalterm*, *Hiztegi Batua*, *EEBS*); Elhuyar (*Hiztegi Elektronikoa*, *Gipuzkoa* CDa); Donostiako Informatika Fakultatea (*Euskararen Datu Base Lexikala*), *Hizkia* (*Xuxen 1* eta *Xuxen 2*); Eusenor/Harluxet (*Hiztegi Entziklopedikoa*); Didaktiker (*Ikastxip*); Aurtien Bai (*Europa Hiztegi Interaktiboa*, *Larramendi*);

Geinsa (itzulpengintza automatikoa); Ihardun Multimedia (CDak eta trebakuntza ikastaroak); Argia (astekariaren kudeaketa); Ametzagaiña (*Kapsula*); Interlinea 2000 (*Erlea*), Deiker (Toponimia), EJJIE (*Windows 95* eta *Word 6*), etab.



Administrazioaren dirulaguntzak

Multimedia-teknologia euskaraz garatzea ez da orain arte izan administrazioaren lehen tasuna. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Industria Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolatutako dirulaguntzen deialdiak salbuespenak izan dira.

Horrela, 1996ko deialdiaren bitartez, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak lau egitasmo lagundu ditu:

✓ Ametzagaiña Taldearen *Argiako elkarrizketak* (1936-1996). 5.000 elkarrizketatik gora biltzen dira dokumentu-base honetan. Aurretik ASP enpresak *kapsula* softwarea sortu zuen Argian ekoiztutako testuak katalogatu eta dokumentazio zerbitzua abiarazteko.

✓ Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ihardun Multimedia taldearen *Olleriasoko Buztingintza Museoa / Euskal Herriko Eltzegindegi Tradizionalak XX. mendean* CD-ROMa. Informazioa ahotsez gain, bideo, argazki eta testuen bidez ere eskura daiteke.

✓ Aurtien Bai Fundazioaren *Euskal Herriko Museoa* CD-ROMa. Arabako Arkeologi Museoa, Baionako Euskal Museoa, Bilbo Arkeologi, Etnografi eta Historia Museoa eta Donostiako San Telmo Museoko etnografia ondarea lantzen da. Euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez dago informazioa.

✓ Elhuyar Kultur Elkartearen *Euskal Herria. Multimedia Entziklopedia* CD-ROMa. Euskal Herriaren berri ematen du; geografia, historia, kultura, hizkuntza, artea, literatura, pertsonaiak, festak, etab., lantzen dira. Informazio kopuru handia eta era askotakoa dago: argazkiak, mapak, testua, grafikoak, bideoak, doinuak, jokoak, ...

Euskararen Aholku Batzordea

Gaiak duen garrantzia ikusita, Euskararen Aholku Batzordea-

S U M A R I O A

- 1 **Teknologia berrien erabilera euskara biziberritzeko**
- 2 **Laburrak**
Martin Ugalde Orraldre Agenda
- 3 **Europako dirulaguntzak Deialdia**
Ahoz Aho Belaunez Belaun
- 4 **Izen-abizenez**
La Burundesa eta Mattin Mottela ipuin-bilduma esku emanda
Lehen begiratuan

rentzat eginiko txostenean hainbat ikerketa ildo nagusi aholkatzen dira. Horien artean: bulegotika aplikazioetan hiztegi automatikoak, ortografi zuzentzaileak eta sinonimoen hiztegiak ezartzeko software aplikazioak garatzea; euskara ikasteko multimedia-sistemak garatzea; kultura-erreferentzial birtualak sortzea, Euskal Kulturaren Ondareari buruzko informazioa digitalizatu, galdetu eta hedatzeko, etab.


Azkenik, euskara biziberritzeko hiru proposamen egiten dira:

- ✓ Informazioaren eta komunikazioaren teknologia euskara biziberritzeko duen garrantziak gogoeta egitea.
- ✓ Esparru honetan euskara biziberritzeko lehen tasunetik handiena duten egitasmoak identifikatzea.
- ✓ Erdietsitako lorpenak gizaratzea eta euskalgintzan diharduten elkarte zein enpresen artean horien transferentzia egingo dela bermatzea.

LABURRAK

Koldo Mitxelena Elissalt
1915-1987

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1997ko ekainean kaleratu zuen *Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987* liburua, Koldo Mitxelena hizkuntzalari, historialari eta euskaltzain errenteriarren heriotzaren hamargarren urtea dela eta, antolatutako ekitaldien barruan. Endrike Knörr, Juan Carlos Jimenez de Aberasturi, Elixabete Perez Gaztelu, Joakin Gorrotxategi, Gregorio Monreal eta Idoia Estornesen artikulua bildu dira eta horietan, Koldo Mitxelena biografia eta bibliografiaren gain, haren jarrera eta militantzia politiko-nazionalista, euskal unibertsitatea bultzatzean izandako garrantzia eta hizkuntzalaritzari zein euskararen batasun eta normalizazioari eginiko ekarriak adierazten dira. Aipatzekoak dira, halaber, Joan Corominas filologo katalanaren eta Sorbonako Unibertsitatean irakasle izandako Giovanna Madonia irakaslearen gutun bana.

Bizkaiko AEK eta ARGIA
irakurzaletasuna bultzatzen

Bizkaiko AEK eta ARGIAk, euskal astekariaren harpidetza areagotzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko proiektuari ekingo diote datorren udazkenean. Goi-urratsetako euskara ikasleei zuzenduta dago kanpaina, batik bat. Euskaltegian matrikula egitearekin batera astekariaren epe baterako harpidetza jasoko du dohan. Eskolak emateko garaian ere izango du eraginik proiektu honek, ARGIAko artikulua modu didaktikoan jarri eta eskolako material bilakatzeko asmoa baitago: ARGIAko artikuluetan oinarrituta, AEKko irakasleek eskoletan erabiltzeko eta ariketak egiteko gehigarria prestatuko dute. Kanpaina irailean eta matrikulazio nagusia urrian egingo badira ere, urte osora hedatu nahi da proiektu pilotu hau. Amaieran azterketa egingo da, helburuak, hau da, irakurketa-maila hobetzea eta irakurzaletasuna eta ARGIAren harpidetza handitzea lortu diren edo ez eta aurrera begira zer egin jakiteko.

Martin Ugalde
Orraldre

Martin Ugalde idazle, kazetari eta euskaltzalea Andoainean jaio zen 1921ean. Gerra Zibila zela eta, aita Caracasera joan zen eta berak ere hainbat urte egin zituen Venezuelan. Han hainbat euskal aldizkaritako kolaboratzaile, zuzendari eta erredakziorburu izan zen. EAJko atzerriko batzordeko lehendakari eta Caracasko Euzko Gazteriko sortzaile ere izan zen. EEBBetan ingelesa ikasi eta kazetaritza-ikasketak egin zituen. Urte batzuetan EEBBetan bizi ondoren, 1954an berriro Caracasera itzuli zen. Venezuelan zela hasi zen literaturarekin zaletzen eta ipuinak idatzi zituen. 1969an Euskal Herrira itzuli zen; EAJren *Alderdi*

aldizkariko zuzendari, *Zeruko Argiako* kolaboratzaile eta erbesteko Eusko Jaurlaritzako kontseilari izan zen. 1973-76 bitartean Donibane-Lohizunen bizi behar izan zuen erbestean. *Deia* egunkariko euskarazko taldearen erredaktoreburu (1978), Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako zuzendari (1982-85) eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko sortzaileetako izan zen. 1990az geroztik *Egunkariako* Administrazio Kontseiluko lehendakaria da eta 1993an, berriz, Euskaltzaindiko



ohorezko kide izendatu zuten. Kazetari-lanak gain, hainbat liburu idatzi du gazteleraz eta euskaraz: ipuinak, nobelak, antzerkiak, biografiak, historia-lanak, etab. Kazetaritza-alorrean, eta bereziki euskal kazetaritzan, eginiko lanagatik ohorezko aipamena jaso zuen ekainaren 28an Andoaingo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren eskutik.

AGENDA

Badatoz urriko ospakizunak

Euskaltzaleek ongi dakiten bezala, badira urtean zehar egutegian egun handi bezala ipintzen ditugunak. Horietaoak dira, hain zuzen ere datorren urrian egingo diren Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak eta Nafarroako ikastolen aldeko Nafarroa Oinez festak eta

euskalduntzearen aldeko AEK Eguna. Kilometroak Lezo eta Pasaia udalerrietako Lezo-Pasaia lizeoak antolatuko du urriaren 5erako, *Euskarak deus ez du arrotz* lelopean. Nafarroa Oinez, berriz, Tafallako Garzes de los Faios ikastolak antolatuko du urriaren

19rako, *Lan ta lan auzolan* lelopean. AEK Egunari dagokionez, datorren urriaren 26an izango da Portugaleten, *Euskara kalean gora* lelopean. Hamargarren edizio izango da aurten eta iaz lehenengoz eta arrakasta handiz Iparraldean egin ondoren, aurten Hegoaldera itzuliko da.

Europako dirulaguntzak


Europako Batzordeak, urtero bezala, eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko proiektuak laguntzeko deialdia egin du. Hizkuntz gaitasunaren garapena, lurraldeen arteko informazio eta dokumentazio-sareak eta hizkuntz normalizazioa eta hizkuntzaren sustapen ekonomiko eta soziala bultzatzera bideratutako proiektuak lagunduko dira. Aurkezteko, Europako Batasuneko 15 lurraldeetako batekoa edota Europako Ekonomi Eremukoa izan eta izaera juridiko bereziko erakundea izatea eskatzen da. Proiektuak aukeratzekoan, Europako Batzordeak kontuan izango ditu hainbat irizpide, besteak beste, proiektuak Batasunerako duen balio erantsia,

hau da, bi estaturen edo bi hizkuntz komunitateren arteko lankidetzak, proiektuaren efektu biderkatzailea, eskaeraren kalitatea, etabar. Eskabideak aurkezteko epea 1997ko azaroaren 1ean amaitzen da proiektua 1998ko apirilaren 1etik aurrera hastekoa bada; proiektua 1998ko irailaren 15etik aurrera burutzekoa bada, berriz, eskabidea aurkezteko epea 1998ko apirilaren 1a da. Laguntzarik eskatu nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak aholkularitza eta bitartekaritza lana egiten du. Eskabide orriak eta informazio gehiago lortzeko Gasteizko (945) 188090 telefono zenbakira deitu behar da.

DEIALDIA

Donostia Hiria saria


Literatur sorkuntza eta hedapena sustatzeko Kutxa Fundazioak, Gipuzkoa Donostia Kutzaren Gizarte-Ekintzak, Donostiako Udalaren lankidetzarekin 1998ko *Donostia Hiria Literatur Sariak* deitu ditu. Euskarazko nahiz gaztelarazko idazlanak aurkez daitezke, ipuin zein antzerki-modalitateetan.



Lanak onartzeko epea 1997ko urriaren 31n itxiko da. Irabazleen hautaketa eta sari-banaketa 1998ko urtarrilean egingo da Donostian.



**Ahoz aho
belaunez belau**
erakusketa ondoko herri hauetan izango da 1997ko iraila eta abendua bitartean.



- | | |
|----------------------------------|-------------------------------------|
| 1 HERNANI
irailak 8/21 | 5 GALDAKAO
urriak 27 - azaroak 9 |
| 2 EIRAR
irailak 22-urriak 5 | 6 ARRIGORRIAGA
azaroak 17/30 |
| 3 DERA - ELGOIBAR
urriak 6/12 | 7 DONOSTIA
abendua 1/14 |
| 4 RASAURI
urriak 13/26 | |

Miren Bego Urrutia Barandika



Miren Bego Urrutiak *Janariaren lorpena, hautespena eta zurgapena Cerastoderma edule eta Mytilus edulis bibalbioetan* izeneko tesia defendatu zuen 1997ko maiatzaren 29an Leioako Zientzi Fakultatean. Ingurunekeo nutrizio-baldintzen aldaketen aurrean bibalbioek emandako elikadura-erantzunaren berri ematea izan da tesi honen ekarpenik nabarmenena. Juan Ignacio Perez (EHUko Euskararako errektoreordea eta Animalia Fisiologiako irakasle titularra) eta Enrique Navarro

(Animalia Fisiologiako katedratikoa) izan ziren tesiaren zuzendariak. Gai cum laude nota jaso zuen eginiko defentsaren ondoren.

Tesia euskaraz eta gazteleraz egin zuen eta defentsa, berriz, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez, mahaikide batzuk atzerritarrek baitziren. Miren Bego Gernikan jaio zen 1966an. Biologiako ikasketak EHUko Leioako Zientzi Fakultatean egin eta gaur egun bertako Animalia Biologia sailleko irakasle da.

Goio Ramos Villanueva

Debako Udalak urtero antolatzen duen *Tene Mujika* ipuin lehiaketaren 1997ko saria Goio Ramos Villanueva idazle bizkaitarrak jaso du 903, *Itxumustuko zita* ipuin laburrarekin. 903 lerro erotikoaren bidez elkar ezagututako bi pertsonen arteko zita baten inguruko gorabeheren kontakizuna da ipuinaren mamia. Ipuina ez da erotikoa, izenburuak hori pentsatzeko bidea ematen badu ere. Saria

urtarrilean banatu zen, baina maiatzean argitaratu da Elkar argitaletxearen eskutik. Idazle honek argitaratzen duen lehen lana da, orain arte ipuin laburrekin hainbat sari lortu baditu ere; hala nola, Portugalete, Arrigorriaga, eta Errenteria hirikoak. Goio Ramos idazle basauriarra 1966an jaio zen. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Gasteizko Fakultatean.



Ugaoko Lehen Hezkuntzako eskola publikoko irakasle da gaur egun.

La Burundesa eta *Mattin Mottela* ipuin-bilduma esku emanda

La Burundesa autobus konpainia Jose Maria Satrustegi idazle eta euskaltzain nafarraren *Mattin Mottela* liburua banatzen ari da dohainik bidaiarien artean; besteak beste, Gasteiz eta Donostia arteko ibilbidea egiten dutenek daukate ipuin-liburu hau eskuratzeko aukera. Alsa taldearen poltsiko-liburuen bildumako 64garrena da hau eta Sakanako ipuinak biltzen ditu. *Mitos y creencias* obrarekin hasitako euskal etnografiari buruzko sorta ixten du lan honek. 5.000 ale kaleratu dira, euskaraz eta gazteleraz, eta La Burundesa konpainiak 4.500 banatuko ditu bere bidaiarien artean. Nafarroako hainbat liburutegi eta eskolara ere banatuko da.

Lehen begiratuan

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak *ARGIRO idazteko proposamenak eta ariketak* liburua aurkeztu zuen UEUren Iruñeko saioetan. Administrazio-arloko testuak txukun eta argiro egiteko laguntza dakar lan honek. Teoria eskaintzeaz gain, proposamen zehatzak eta hainbat ariketa gordetzen ditu bere baitan. Administrazio-testuak egiten dituztenentzat ezezik, edozein testu idazten duenarentzat ere baliogarria izan daiteke. HAAEren *Administrazioan euskaraz* sortako bigarren lana da, 1994an argitaratutako *Hizkera argiaren bidetik* liburuaren ondotik.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

